

**ERABAKIA, EPAIMAHAIARENA, HIRUGARREN SAILKAPEN TALDEA, IKT-KO TEKNIKARI ESPEZIALISTA KATEGORIAN, SISTEMEN INFORMATIKA ESPEZIALITATEAN, LAN KONTRATUDUN LANGILEAK SARTZEKO HAUTAKETA PROZESUA, 2018KO AZAROAREN 2KO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA.**

Deialdiaren zortzigarren eta hamabigarren oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoaren 3. puntuari jasotakoarekin bat (UPV/EHUko Errektorearen 2018ko azaroaren 2ko erabakietan), Hirugarren sailkapen taldea, IKTko Teknikari espezialista kategorian, Aplikazioen Informatika espezialitatean, lan kontratadun langileak sartzeko hautaketa-prozesuko epaimahaiak honako hau iragarri du:

**LEHENENGOA.** – Zati praktikoaren 32. galdera baliogabetzea, eta, ondorioz, zati praktikoaren 61. erreserbako galdera jartzea horren orde. Zati teorikoaren 32. galdera baliogabetzen da euskaraz eta gaztelaniazko testuen esanahia bat ez datozelako, eta honen ondorioz, erantzunak berdinak ez direlako.

**BIGARRENA.**– Oposizio-faseko ariketak zuzentzea, eta txanda irekiko gaituen behin-behineko zerrendak egitea, dagozkien kalifikazioen eta puntuazio-hurrenkeraren arabera.

**HIRUGARRENA.** – Zerrenda horiek EHUko enplegu-atarian ([https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite\\_g/euskera/generico\\_login.jsp?prcs=265](https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp?prcs=265)) argitaratzea, hautagaiak kontsulta ditzaten.

**LAUGARRENA.** – Hamar lanegunen epea ematea, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezten, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Halaber, epe horren barruan, gaitutako izangaien lehiaketa-faseko merezimendu konputagarriak alegatu eta egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio. Oposizio-aldiko behin-behineko emaitzei erreklamazioen bat egiten dietenek merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dituzte horiekin batera.

**BOSTGARRENA.** - Adierazi behar da interesdunek eskabidean alegatutako merezimenduen jatorrizko egiaztagirak eta kopiak aurkeztu beharko dutela erkaketa egiteko, edo, bestela, organo eskudunak behar bezala erkatutako kopia.

Baldintza horietan berberetan aurkeztu beharko dituzte egiaztagirak, kautelaz, oposizio fasea gaitutu ez dutenek, baldin eta errekurtsioa aurkeztu badute eta horrek hasierako fasea gaitutzea ekar badezake.


Bestalde, UPV/EHUK ofizioz aurkeztuko ditu UPV/EHUn zerbitzuak bete dituzten hautagaien egiaztagirak, baldin eta eskari orrian horrela adierazi badute.

Gainontzeko zerbitzuak egiaztatu egin beharko dira egiaztagiri bidez, eranskinean jasotako ereduari jarraituz.

**SEIGARRENA.** - Dokumentazio hori horretarako gaitutako EHUko erregistroetan aurkeztu ahal izango da. Era berean, eskariak aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aipatzen diren bideak erabiliz (39/2015 Legea, urriaren 1eko, 16.4. art.), lege horretako azken xedapenetako zazpigarrenak erregistro elektronikorako ezartzen duen salbuespenarekin (hau da, erregistro elektronikoa dagozkion xedapenak hasiko direla ondorioak sortzen legea indarrean sartu eta bi urteren buruan).

Leioa, 2019ko abenduaren 19a

Epaimahaiko idazkaria

  
Javier Angulo Gento